

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,  
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **Ekintzaileei laguntzeko beken udal programako laguntza ekonomikoen bigarren ordainketaren jakinarazpena. Lehen fasea, 2020**

I. Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko erabakiz onetsi ziren Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; besteak beste, Enpresen Zerbitzuan, 25. ildoak, "ekintzaileentzako beka" izenekoa (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia).

II. Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta deialdiaren oinarri orokor horietan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak ekintzaileentzako beken udal programaren berriazko oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen 2020ko martxoaren 6ko erabakiz (2020ko apirilaren 1eko ALHAO, 38. zk.), 83.700,00 euroko zuzkidurarekin, 2020ko ekitaldirako onartutako udal aurrekontuko 0821.4331.4.8949 partidaren kontura.

III. 2020ko ekainaren 15ean bukatu zelarik deialdiaren lehen faseko eskabideak aurkezteko ezarritako epea, deialdi horren lehen fasea ebatzi zen, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2020ko uztailaren 14ko ebazpena zela medio, eta emandako beken lehen erdia ordaindu zedila onetsi, aldi berean bigarren erdiaren ordainketa jasotzeko baldintzat jarritzat egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen oroitidazkia aurkeztea (deialdiaren 4. eta 10. oinarriak).

IV. 2019ko irailaren 18an, enpresa-proiektu horien tutoretzaren eta jarraipenaren arduradunak txostena egin zuen, oroitidazki teknikoak aurkeztu duten onuradunei bekaren bigarren erdia ordaintzearen aldeko.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebaztea.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, bekadunen proiektuak jarraitzeko izendatutako tutoreak egindako proposamena ikusirik, eta Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenak eskuordetzeko 2019ko ekainaren 21eko erabakia dela medio, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak hau,

## EBATZI DU

Lehena. Deialdiaren 13. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, pertsona hauei 2020ko uztailaren 14ko ebazpenaren bidez emandako ekintzaileei laguntzeko beken bigarren erdia (ehuneko 50) ordain dakiela onestea:

	NAN	Bekaren 2. ordainketa (€)
1	72720037V	1.250
2	72741271E	1.250
3	72754071B	1.190
4	45625216R	1.010
5	44679928J	1.010
6	16286679B	1.010
7	58030878S	890
8	72753979B	830
9	78987958R	800
10	16630470K	800
11	72747949F	770
12	72840942B	740
13	72740782Q	680
14	72845723P	650
15	72751097G	500
16	72831480W	500
17	72740621Q	500
18	72757301K	500
19	Y4401974H	500
20	Y4313675Q	500
		<b>15.880</b>

Bigarrena. Ordainketa horien zenbateko osoa (15.880,00 euro) 2020 ekitaldiko udal aurrekontuko 0821.4331.48949 partidan deialdirako zorpekinaren kontura jasota uztea (laugarren oinarria).

Hirugarrena. Beken onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, horiek ezereztu ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko da.

Laugarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazten den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 1ean

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria*  
ARACELI DE LA HORRA GUTIÉRREZ